

udaltop

**UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK**



IZENBURUA:

**UDALTOP 2015, TALDE LANAREN
EMAITZA**



Aurkibidea

1. Sarrera.....	3
2. Udal lege berriaren proposamena	4
3. Udaletako hizkuntzen erabilera eta kudeaketa	7
4. Nola hobetu egiten dugun hori	11



1. Sarrera

Hitzaldiak entzun ostean, 10 talde osatu ditugu talde-lanari ekiteko.

Talde-lanak bi zati izan ditu:

- Udal Lege Berriaren proposamenarekin lotutakoa
- Udaletako hizkuntzen kudeaketarekin lotutakoa

Lehenengo zatian, beraz, lege berriak, EAeko udaletako hizkuntzen kudeaketan, zer nolako babes juridikoa ematen duen aztertu dugu, euskarazko jarduna indartzeko edo lehenesteko.

Bigarrenean, aldiz, Euskal Herri osoko udaletako hizkuntzen kudeaketa edo praktika aztertu dugu. Praktika horretan legeak eragiten du, baina, baita beste hainbat faktorek ere. Hortaz, gaur egun zer egiten dugun, egoera horretara nola iritsi garen eta aurrera begira zer egin, aztertzen aritu gara.

Lantalde bakoitzak egindako lana jaso, aztertu eta bateratu egin dugu. Datozen orrialdeetan duzue talde-lanaren emaitza.



2. Udal lege berriaren proposamena

Hiru alderdi landu ditugu: indarguneak, ahuleziak eta legeari ekarpena.

INDARGUNEAK

- Eredua propioa lantzeak daukan balioa
- Babesa ematen digu estatuko neurri zentralizatzaileei aurre egiteko. Guk ez badugu zehazten gure esparrua eta jardun-eremua, beste batzuek egingo dituzten interpretazio "interesatuen" menpe egongo gara.
- Eskumen gehiago aitortzen dizkie udalei eta, beraz, autonomia handitu: erabilera-planak egiteko, hizkuntza-irizpideak ezartzeko, ordenantzak egiteko, Udal Elkarteak eratzeko...
- Euskararen sustapenerako eskumenak ematen dizkie udalei (EAE). Ondorioz, finantziarako ere bai. Gure planek babes sendoagoa izanen dute.
- Udalean indar gehiago jartzerakoan, beharbada udalerrri euskaldunenak indartzeko aukera egon daiteke.
- Euskararen zeharlerrotasunaren kontzeptua txertatzen du.
- Euskara kalitatearekin lotzen du, parametro horietan sartzen du.
- Euskara udaleko Euskara Zerbitzuaren txokotik ateratzen lagunduko du
- Barruko funtzionamendua euskaraz izatea babesten du. Euskara hutsean lan egitea onartzen du.
- Egunerokoan izaten ditugun zenbait traba legalei aurre egiteko arauak zehazten ditu. Praktikoa izan liteke.
- Beldurrak uxatzea.
- Lan- eta zerbitzu-hizkuntza kontzeptuak azpimarratzen ditu.



AHULEZIAK

- Europako Kartak ematen dituen aukerak ez daude jasota; ausardia falta. Ahulezia litzateke gainerako legeek ezarrita ditzuten hainbat eskubideren interpretazio ausarta ez sartzea
- Euskararen ikuspegitik egindako hainbat ekarpen aspaldi zeuden aitortuta (aktak eta bestelako agiriak euskaraz soilik egin ahal izatea)
- Euskararen Legearen mugak ez gainditzea
- Zerbitzu-hizkuntzaren erregulazioan ez du aurrerapenik ematen
- Euskara hutsezko dokumentuen zerrenda mugatua
- Toki-administrazioei gaztelaniaz funtzionatzen segitzeko aukera ematen die
- Udalak berak har ditzakeen erabakiak euskararen aldekoak ez izateko aukera. Hori lotuta utzi beharko luke.
- Jaurlaritzaren aurrean udalak eskumen gehiago hartzerakoan café para todos izatetik, menú a la carta izatera pasatzerakoan, eremu ez euskalduneko udalak (gehiago) erdaldundu daitezke.
- Udalen esku gelditzean erabilera, herrien artean diferentziak sortzea.
- Arnasguneen kontzeptua ez txertatzea, gutxienekoak zehaztea.
- Udal legea ez da euskararen normalizaziorako lege bat. Beste helburu bat du, udal eskumenak zeharritzea; eta euskarari buruzko artikulua adabakiak dira, ez diote euskararen lege-beharrei erantzuten.
- Muga jakinak dauzka:
 - Finantziarioari lotutakoak
 - Lege-esparruari lotutakoak
- Hizkuntza propioaren kontzeptua ez garatzea, berezko hizkuntza izateak ez du ondorio juridikorik.
- Ez du zeharlerrotasuna alorrez alor inplementatzea lortzen. Udal legea izanik euskararen gaia esparru guztietan espresuki ez txertatzea.
- Ez ditu definitzen kontratazio eta diru-laguntzetarako klausulak.
- Ordezkaritza politikoen hizkuntza betebeharra ez arautzea. Ez dio heltzen ordezkaritza euskararen gutxieneko ezagutzari
- Ez dio lehentasunik ematen hizkuntza gutxituari:
 - Lege bideetatik egon liteke zirrikiturik hori gainditzeko?
 - Hizkuntza-paisaia ele bietan izan beharra atzera pausoa herri euskaldunentzat
 - Lehentasunaren kontua aldatzen ez den bitartean, aukerarik bai euskaraz bakarrik jarduteko?
- Zenbait administrazioekiko (epaitegiak...) harremanetan euskara erabiltzeko bidea ez argitzea.
- Arlo pribatuan hankamotz.
- Jarduteko eskubideaz ari da, baina, betebeharrekin ondo uztartu gabe
- Legearen oinarri edo printzipioetan hizkuntza ez aipatzea
- EAerako bakarrik. Euskal Herriko beste lurraldeekiko lankidetzak ez du aipatzen
- Hizkuntza-eskakizunari aipamenik ez; gaitasuna erabilerarekin lotzea da gakoa eta bide horretan ez dago aldaketarik.
- Udalek neurri proporzionalak har ditzaketela dio, baina, zein da benetako eskumena? Nork du azken erabaki? Auzitegiek?

**EKARPENAK**

- Gainerako legeek ezarrita dituzten hainbat eskubideren interpretazio ausarta sartzea (Europako Karta...).
- Egoera soziolinguistikoa kontuan hartzea eta gune euskaldunetarako politika ausartak arautzea, batez ere, zerbitzu-hizkuntzaren alorrean.
- Euskara berezko hizkuntza den neurrian, eduki dezakeen garapena aztertzea eta legean sartzea ondorio juridikoak izan ditzan.
- Zenbait administrazioekiko harremanetan (epaitegi, notaria...) euskara hutsa erabiltzeko bidea argitzea.
- Izaera publikoa edo zerbitzu publikoa eskaintzen duten enpresa edo sozietate pribatuen errealitate administratiboa bateratzea: lege bera, baliabide berak.
- Diskriminazio positiboa zilegitzeko formulak eskaintzea, lehentasuna emateko bidea egitea, euskara defektuzko hizkuntza izateko baliabide juridikoak jartzea.
- Ordezkaritza politikoen gutxieneko ezagutza-maila ezartzea.
- Legearen printzipioetan euskara sartzea euskarari pisu handiagoa emateko.
- Baliabide ekonomikoak bermatzea, hizkuntza-politika eraginkorra egiteko.
- Baliabide gehiago izatea, batez ere udalez gairik aholkularitza.
- Udal baliabideak direla eta, oreka/eraginkortasunaren irizpideak txertatzea (itzulpenak direla eta...).
- Ebaluazio-sistema bat proposatzea, adierazle eta guzti, legearen eta hizkuntza-politiken inpaktua jasotzeko, hutsuneak identifikatu eta neurri zuzentzaileak hartzeko.
- Lege berriak atzera egiteko tarterik ez uztea: errotulazioan, udalerrin ez euskaldunetan...
- Euskararen zeharlerrotasuna Kataluniako legean bezala alor guztietan txertatzea.
- Euskara hutsezko dokumentuen zerrenda irekita uztea.



3. Udaletako hizkuntzen erabilera eta kudeaketa

Hainbat udalerrri hainbat errealitate, bakoitza bere ezaugarri, indargune eta ahuleziekin. Hizkuntzak nola kudeatzen ditugun eta egoera horretara nola iritsi garen aztertzen aritu gara taldeetan. Azterketa horren ostean, aurrera begira jarri gara; jardunaldian entzundakoak eta norberaren esperientzia eta begirada kontuan hartuta, egiten dugun hori hobetzeko proposamenak landu ditugu.

Hona talde-lanean aipatutakoa:

1.1. Hizkuntzen erabilera kudeatzeko erak

Abiapuntu gisa, udal bakoitzak gutxienez arlo bat aukeratu du eta arlo horretako hainbat jardunetan hizkuntzen kudeaketa eta erabilera aztertu ditu, bereziki, barrura begirako ikuspegia izan dugu oinarri. Taula bete ostean azterketari ekin diogu:

Koherentzia: udal batzuetan bat dator barrura begira eta kanpora begira egiten den hizkuntza-kudeaketa. Beste zenbaitetan ez. Kanpora begirakoa euskaraz izateak (aktak-eta) irudi ona ematen du, baina barruan ez da hala gertatzen zenbaitetan. Itxura ez erreala ematen da.

Udalbatza/bazordetako bilerak: idatzizko eta ahozko hizkuntza-erabilera: Batzarretan hizkuntzak nola kudeatzen ditugun aztertzean, eredu desberdinak azaldu dira:

- Ahoz erdaraz, idatziz ele bietan
- Ahoz euskaraz, idatziz ele bietan (Lesaka, Ispaster...)
- Ahoz eta idatziz euskaraz (Usrubil, Hernani, Zumaia, Oñati, Bergara, Bermeo...)
- Ahoz euskaraz egiten dena idatziz euskaraz jaso eta erdaraz egiten dena erdaraz, itzulpenik egin gabe (Lasarte)
- Ahoz euskaraz, idatziz erabakia baino ez ele bietan
- ...

Barrura eta kanporako txostenak, dekretuak, ofizioak... Batzuk beti edo ia beti euskaraz egiten dute, beste batzuek banatuago dute hizkuntzen erabilera (barrurako txostenen %x euskaraz, % x gaztelaniaz), beste batzuek % 100 ele bietan (sortze-hizkuntza batzuetan euskara, bestetan erdara...)



1.2. Nola iritsi dira kudeaketa-eredu horietara?

Aipatutakoak hiru ataletan bana daitezke:

PERTSONAK ETA PERTSONA-TALDEAK

Behin eta berriz pertsona edo pertsona-taldeak aipatu dira, horien gaitasuna, motibazioa, jarrera eta horien eragina normalizazio prozesuan edota hizkuntzen erabilera eta kudeaketan. Hauek dira lantalde desberdinetan aipatu diren pertsona edo pertsona-talde gakoak:

- Ordezkeri politikoak
- Udal teknikariak
- Udal langileak oro har:
- Euskaltzaleak
- Euskararen “kontrako” nolabaiteko jarrera dutenak: askotan adinekoak
- Besterik gabe gaztelaniaz eroso bizi direnak
- Euskara gaitasun nahikorik ez dutenak
- Euskara Zerbitzua
- Zerbitzuburuak
- Idazkariak
- Herritarrak
- ...

Udalerrietako teknikari eta ordezkeri guztiek nabarmendu dute aipatutako pertsona edo pertsona-talde baten /batzuen eragin berezia euren hizkuntzen kudeaketan, batzuetan onerako, besteetan txarrerako. Izan ere, ikusi da zerrendan identifikatutako guztiek eragina dutela udal guztietako hizkuntza-kudeaketan, baina, bakoitzak hartzen duen pisua eta euren arteko botere-harremana ez dela berdina izaten denboran, ezta udal batetik bestera ere. Esaterako, kasu batzuetan, langileek eta langileen inertziak pisu handia du eta erabat baldintzatzen du kudeaketa. Beste batzuetan ordezkeri politikoen pisua izugarria izan da urrats berriak egiteko. Idazkaria ere askok aipatu dute, batzuk idazkariaren eragin positiboa nabarmendu dute, beste batzuk, aldiz, idazkaria oztopo handia dela adierazi. Zerbitzuburuaren inplikazioaren eragina, euskaltzaleek jokutzen duten rola...

HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK ETA HIZKUNTZEN KUDEAKETA ZEHAZTEKO ERAK

Euskararen erabilera areagotzeko eta hizkuntza-irizpideak zehazteko hiru bide nagusi aipatu dira:

Arauen, ordenantzen... bidez:

- Urrietako Udala
 - 1986ko eta 1997ko dekretuak abiapuntu garrantzitsuak izan dira langileen kontratazioetan eragiteko eta beraiek aktibatzeke.



- Oñatiko Udala
 - Oñatik 1987ko ordenantza batean jaso zuen lan-hizkuntza euskara izatea eta onartutako ordenantza horretan oinarritzen dira .

Erabilera-planen bidez

- Legazpiko Udala
 - Legazpin hezkuntza eta gazteria sailak euskaraz funtzionatzen du. Erabilera planean jasota dago euskaraz funtzionatuko duela.

Praktika arau bihurtuz

- Hernaniko Udala
 - % ehunean euskaraz egiten dute lan, ordenantza eta legeei garrantzi berezirik gabe iritsi dira egoera honetara, naturaltasunez eta ohiturari jarraituz.

NORMALIZAZIO-PROZESUAREN NOLAKOTASUNA

Normalizazio-prozesuaren nolakotasunari ere hainbat aipamen egin dizkiote partaideek, kudeaketa-eredu horretara nola iritsi diren azaltzean. Honako elementuei egin diete erreferentzia:

- Guztion artean hizkuntzen kudeaketa eta normalizazio prozesua zehaztu eta bideratzeko ditugun espazioak edo espazio falta
- Euskara Zerbitzu sendorik bai ala ez?
- Prozesua bideratzeko zeharlerrotasuna zenbateraino dago txertatuta? Zenbateraino barneratzen dute euren funtzioen artean langile guztiek eta sail guztiek, teknikari nahiz politikariek, hizkuntzen kudeaketa, euskararen gaia?
- Komunikazioa zenbateraino zaintzen da? Informazioaz harago doazen bideak ba al ditugu?
- Gakoak diren eta hizkuntzen erabileran eragiten duten pertsona eta pertsona-taldeak identifikatuta al ditugu eta horien araberako estrategiak landuta?
- ...



4. Nola hobetu egiten dugun hori

Hona partaideek egindako proposamenak:

4.1. Politikariak

Normalizazioaren arduradunak politikoak dira, edota politikariak ere badira. Nola lortu euren ardura har dezaten?

- Alderdi politikoekin lanketa egin hautagaiei begira
- Agintaldi hasieran politikarekin hizkuntza lidergoaren gaia jorratu euren erreferentzialtasuna onar dezaten, egiten duten hizkuntza hautuak zer-nolako garrantzia duen jabe daitezen. Ordezkaritza politikoekin lanketa berezia egin behar da.
- Politikoekin sedukzio lana egin beharko dugu, gure nahia azaldu, geureganatu, euren jarrera aktibatuzko. Zinegotzi berriak erdi galduta iristen dira eta haiek ongi bideratzeko aukera handiak izaten dituzte udal teknikariek berez. Teknikariek sinetsi behar dute indarra dutela eta hori teknikarien arteko batasunarekin lor daiteke, guztion jarrerak bateratuta.
- Hizkuntza-tratua politikoekin: lan-hizkuntza euskaraz ahal den guztietan.
- Kontsentsu politikoa landu
- Politikariei hizkuntza-eskakizuna jarri behar zaie
- Arduradun politikoekin eta, zehazki, alkatearen hizkuntza-gaitasuna hobetu.

Donostiako Udala

Donostian ingurumen sailean aldaketa nabaritu da udal gobernu berriaren eraginez. Ebazpenak euskaraz ez baldin badaude ez dira sinatzen.

Usurbilgo Udala:

- *Politikariek ausart jokatzeko dute, legetik harantz hartutako erabakiak.*
- *Zinegotzi erdaldunekin prozedurak adostu dituzte, udal bileretako hizkuntza euskara izan dadin. Udal bilerak izan aurretik emaniko azalpenak... herri euskaldunetan euskara jakiteko beharra - lotsa sartarazteraino-.*

Bergarako Udala

Alderdi politikoekin ere lanketa egin da, hautagaiei begira.

Bermeoko Udala

Transizio garaitik dator euskarazko funtzionamenduaren aldeko jarrera eta praktika. 80 hamarkadan langileei HE eskatzen hasi ziren eta orduz geroztik alderdi politiko guztiek jarraitu dute ildo berean (EAJ-EA-Bildu).



4.2. Euskara zerbitzua

- Euskara Zerbitzuko langileek ezin dute beste alorretako lankideei kontu eskean ibili, eginkizun hori agintari politikoen da, baina lau urtean behin aldatzen dira eta ez dute enfrontamendurik nahi langileekin. Euskara Zerbitzuaren egitekoa eragitea da, elkarrekin eraikitze espazioak eta baldintzak sortzea.
- Euskara Zerbitzuan ausardia behar dugu. Maiz teknikariek jartzen dituzte trabak. Beste batzuetan teknikariak beldurrez aurkezten dizkio eginbeharrak idazkariari eta horrelakoetan gauzak ez dira ondo ateratzen. Gure buruarengan konfiantza izan behar dugu eta beldurrik gabe jokatu.

Leitzako Udala

Leitzako Udaleko errotulazioa euskara hutsean dago eta momentuz, ez dute kexarik jaso.

Elgoibarreko Udala

Askotan jaso dira herritarren kexak, informazioa euskara hutsean bidaltzeagatik, baina horregatik ez dute atzera egin, kexa horiekin bizitzen ikasi behar da!

4.3. Udaletako langileak

- Gure udaleko lankideekin gai hauetaz, euskararen normalizazioaz, hitz egiteko konfiantza falta zaigu. Horretarako espazioak eta baldintzak sortu behar ditugu.
- Udalaren barruan jarrera ona dutenekin lan egin behar da. Sentiberatasun handiagoa duten pertsonak gehiago baliatu.
- Erdal mundua euskal munduan integratzeko urratsak eta parte hartzeko espazioak behar ditugu.
- Hizkuntza betebeharrak betetzen ez dituzten langileekin lanketak.
- Arduradun teknikoak klabeak direnez, beren gaitasuna hobetu eta jarrera landu.

4.4. Udaletako sailak

- Euskara hutsez funtzionatu dezaketen sailak edo atalak identifikatu.
- Udaletako sailen arteko gertuko harremana landu behar da eta bide horretatik egin aurrera.
- Euskararen erabilera sailekoekin batera eta sailentzat landu.
- Euskaraz funtzionatzen duten sailei babesa eman, euren lana errekonozitu, gainerako sailentzat eredugarri bihurtu
- Ondo zehaztu beharko liriteke esparru guztiak Hizkuntza Irizpideetan eta Euskararen Jarraipen Batzordearen bidez horren balorazioa egin... Urrutiak eta Belaustegik aipatutako " Relaciones de sujeción especial" horiek ere modu naturalean landu beharko genituzke; lan funtzioak zehaztuta, nork zer egin behar duen (euskaraz, gaztelaniaz, bietara).



- Agintzen duenak oso garbi eduki behar du zer egin nahi duen. Udaletxea enpresa pribatu bat bezala kudeatu behar da. Enpresa pribatuetan gerenteak zehazten duena enpresa osatzen duten pertsonak ez dute zalantzan jartzen, udaletxeetan ere horrela izan beharko luke.

Donostiako Udala

Zuzendaritza guztietan erabilera batzordeak indarrean daude. Ataleko zuzendariak eta euskara teknikariak protokoloa jakinarazten diete langile guztiei. Ordezkaritza politikokoak erabakiaren gainean daude.

4.5. Euskararen zeharlerrotasuna

- Prozesuakako gestioan, kalitatearekin lotuta, euskara irizpideen bermea prozedura guztietan sartzea, eta horrela, dagokion alorreko teknikariak kudeatzea bere departamentuan euskararen bermea, kalitate prozesu horiek betearaziz.
- Herritarrekin espedienteak kudeatzen duen departamentuari dagokio hizkuntza-irizpideak bermatzen direla egiaztatzea.
- Itzulpenak dagokion departamentuak kudeatzea, ez dira euskara-zerbitzutik kudeatzen. Itzulpen-zerbitzua idazkaritzan kokatuta dago, zeharlerrotasun ikuspegitik.
- Horrelako jardunaldietara udaleko gainontzeko langileak ere gonbidatu beharko lirateke, zeharkakotasuna lantzeko. Eta bereziki, ordezkaritza politikokoak.

Zarauzko Udala

Itzulpenak dagokion departamentuak kudeatzen ditu, ez dira euskara-zerbitzutik kudeatzen. Itzulpen-zerbitzua idazkaritzan kokatuta dago, zeharlerrotasun ikuspegitik.

4.6. Elebitasuna eta itzulpenak

- Ele bietako mentalitatea gainditzeko bideak urratu:
 - Asimetria (laburpenak; ahozko azalpenak; ahoz nola egiten den, idatziz horrela jaso itzuli gabe...)
 - Erdarazkoari ere bidea eman (kontrolatuta, noski)
- Sailletako dokumentuak sailkatu eta zein hizkuntzatan egingo diren zehaztu eta adostu. **Sistematizatu eta arautu egin behar da hori guztia. Zer egiten daiteke euskara hutsez?**
 - **Barnekoa** edo **kanpoko** den **bereizi**, eta barnekoan euskarazko joera lehenetsi
 - **Lan-zirkuituak azter** daitezke, teknikariak, arduradun politikokoak...
 - Politikarien eta langileen **inplikazioa** bilatu, sentsibilizazioa landu
 - **Alferrikako itzulpenik ez...** Identifikatu egin behar da zer den itzuli beharrekoa eta zer ez:
 - Badaude herritarrentzako inpaktu handirik ez duten dokumentu edo txostenak, administrazio orokorretara gaztelania hutsean bidaltzen direnak. Ez du merezi horietan indarra galtzeak.



- Itzulpenak ezinbestekoak direnean bakarrik, hau da, **herritarrek hala eskatzen dutenean**, kanporako beharrezkoa denean
- **Marko legalaren** aukerak aprobeztatu, esate baterako aktak euskara hutsean bidal badaitezke, ez itzuli
- Kanpo-harremanetan lehentasuna euskarari emateko, herritarrekiko batzarretan eta bileretan **hizkuntzak** eta elebitasuna **kudeatzeko baliabideak ematea** teknikari eta politikoei.
- Euskara hutsezko jarduna indartzeko:
 - Herritarrek eskaerak euskaraz egitea sustatu behar dugu, dibulgazio-lana egin, estrategiak bilatu.
 - Herritarrekiko harremana euskara hutsez izan dadin sustatu behar dugu, naturaltasunez, ausardiaz. Udalak proaktibo jokatu behar du.
 - Garrantzizkoa izan daiteke udalak herritarren errolda egitea.

Zarauzko Udala

Herritarrekin harremanak euskaraz izateko udalak jarrera aktiboa izan du Udalarekin harremanak euskaraz izango dituzten herritarrak bilatu eta identifikatu: Kanpainak, telefonoz, mezu elektrinko bidez, zuzeneko bisitak... 2.000 lagun inguruko zerrenda osatu eta errolda datuetara bolkatu. Aplikazio informatiko batean bildu...

Bermeoko Udala

Praktika on gisa ikusi da: herritarrenganako komunikazio osoa euskaraz egiten da; ulertzen ez duena udaletxera joatera gonbidatzen da, bertan azal diezaioten.

Oñatin eta Leitza

Defektuz dena euskaraz bidaltzen diete herritarrei. Informazioa horrela jaso nahi ez duenak eskatu egiten du.

- Ahozko erabilera indartu, ahozkoari protagonismo handiagoa eman.

4.7. Hizkuntza eskakizunak eta kontratazioa

- Falta diren kontratazioetan Derrigortasun Data jarri, baita zerbitzu enpresen hizkuntza klausulak eta jarraipena sistematikoki egiteko bideak ere.
- Kontratazioak egiterakoan euskararen ezagutza bermatzeko titulazioa eskatu beharrean, egin beharko duen zeregina euskaraz egiteko gai izango dela hautatze-prozesuan bermatzea eraginkorragoa da.
- Arkitektoen kontratazioak udalaren zuzeneko kontratazio bihurtzea bidea izan daiteke euskalduna izango dela bermatzeko.
- Hizkuntza-eskakizunak betetzeko sistema aztertu, laneko funtzioak zehaztuta, erabilerarekin zuzenean lotu.

Zestoako Udala

Zestoan arkitektoa kontratatzerakoan elkarriketa euskaraz egin zitzaion eta garbi adierazi zitzaion euskaraz egin beharko zuela lan. Erabaki politiko bat egon da atzean. Euskara teknikariaren erronka izan da urte luzeetan. Momentua iritsi denean heldu egin zaio gaiari eta lorpena egon da.

**Leitzako Udala**

Leitzako udaletxean lan egiteko, Hizkuntza Eskakizuna dutenek ere, euskara-proba egin behar dute. Bestela askotan, titulua duen jendea sartzen da baina euskara sekula erabili ez duena eta hori eragozteko asmoz jarri zuten martxan neurri hori.

Bergarako Udala

Herriko euskara indizearen eragina handia izan da. Besteak beste, arauak jartzerakoan (ia tekniko guztiei 4HE eskatzen zaie).

4.8. Diru-laguntzak

- Diru-laguntzak esleitzeko hizkuntza-klausulak ezartzea.

Pasaiaiko Udala

Kirol sailean elkarteen munduaren zailtasunak dituzte, askok gaztelaniaz funtzionatzen baitute, haur eta nerabeei jarduerak gaztelaniaz ematen baitizkiete. Konponbidea emateko asmoz, elkarteei diru-laguntzak esleitzerakoan euskaraz funtzionatzeko baldintza ezarri diete.

Zestoako Udala

Zestoak diru-laguntzen arautegi bateratua izatea lortu du eta euskararen gaia txertatzea

4.9. Ereduak sortu, praktika onak zabaldu

- Eredu diren sail edo zerbitzuen praktika onak zabaldu, komunikatu udaleko gainerako sailei eta baita beste erakundeei ere.
- Udaletan, aldundietan erreferentziak jarri behar dira.
- Txantiloia eta ereduaren bidez lan egiteak asko laguntzen du funtzionamenduan. Langileei tresnak eta prestakuntza eman behar zaizkio.

4.10. Botere harremanak eta hizkuntza-lidergoa

Hizkuntza-kudeaketan eragiten duten eragileak eta euren arteko botere-harremanak identifikatu eta landu. Elkarlana sustatu eta norabide guztietan eragin:

- Goitik beherako aginduak
- Behetik gorako eskaera
- Sailen artean
- ...

4.11. Legedia

- Europako Kartari heldu beharko genioke, legeen artea ere hierarkiak baitaude eta Europako Karta beste legeen gainetik baitago.
- Legearen zirrikituak baliatu behar ditugu eta aurrera egiten saiatu, legearen mugetan geratu gabe.



- Marko legalaren aukerak aprobeztatu, esate baterako aktak euskara hutsean bidali
- Euskaraz sortzeko aukera daukagu eta ausardiaz jokatu behar dugu.